



Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**UNIBERTSITATE MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO
IRAKASLETZAN**

MASTER AMAIERAKO LANA

IRUÑERRIKO GAZTEEN HIZKERA

IKASLEA: AUDREY SERRANO VILLEGAS

TUTOREA: ORREAGA IBARRA MURILLO

ESPEZIALITATEA: EUSKARA ETA LITERATURA

EKAINA, 2023

LABURPENA

Iruñerrian gazte euskaldun gehienek euskara ikastolan ikasi dute eta ez dute kalean erabiltzen. Egoera honen ondorioz eta gaztelaniaren eraginez, hainbat baliabide erabiltzen dituzte beren ahozko diskurtsoan: batik bat kode aldaketa eta kalkoak. Gainera, testuinguru informaletan euskaraz aritzeko ez dira gai.

Lan honen helburua gazteen hizkuntza ezagutzea da, haientzat erabilgarria izan daitekeen proposamen didaktikoa egiteko asmorekin. Lehenik, Iruñerriko egoera soziolinguistikoa aztertu dut, eta gazteen hizkerari buruz aditu batzuen ikerketak bildu ditut, batez ere kode aldaketaren eta kalkoen inguruan. Gero, Iruñeko Hizkuntza Eskolako ikasle gazteen hizkera aztertu dut egunero, klasean egiten diren ahozko ariketetan erabiltzen duten hizkuntza jasoz. Horretarako, inkesta bat ere egin diet ikasleei, beren profila eta beharrak ezagutzeko. Honekin guztiarekin, proposamen didaktiko bat prestatu dut: alde batetik, gehien egiten dituzten akatsak ekiditeko ariketak porposatuz baita euskara informala lantzeko ariketak ere.

Hitz gakoak: gazte hizkera; euskararen erabilera; kalkoak; kode aldaketa; euskara informala.

RESUMEN

En la Comarca de Pamplona la mayoría de los jóvenes euskaldunes han aprendido euskera en la ikastola y no lo utilizan en la calle. Esta situación hace que, por influencia del castellano, utilicen diversos recursos en su discurso oral: preferentemente el cambio de código y los calcos lingüísticos. Por otra parte, estos jóvenes presentan ciertas dificultades para desenvolverse en euskera en contextos informales.

El objetivo de este trabajo es conocer el habla coloquial de los jóvenes para elaborar una propuesta didáctica que pueda ser útil para ellos. En primer lugar, he analizado la situación sociolingüística de la Comarca de Pamplona, y he recopilado estudios de expertos sobre el lenguaje juvenil, sobre todo en cuanto al cambio de código y los calcos. Después, he analizado diariamente las producciones orales de los alumnos de la escuela de idiomas de Pamplona, las utilizadas en los ejercicios orales que se realizan en clase. También he realizado una encuesta a los alumnos para conocer su perfil y sus necesidades. A partir de este bagaje recopilado, he preparado una propuesta didáctica: un ejercicio para evitar los errores más habituales y un ejercicio para trabajar el euskera informal.

Palabras clave: lenguaje juvenil; uso del euskera; calcos; cambio de código; euskera informal.

ABSTRACT

In the Region of Pamplona, most of the young basque people have learned basque in school and do not use it on the street. Due to this situation and the influence of spanish, they use various resources in their oral discourse: code-switching and calques, above all. Furthermore, they are not able to speak basque in informal contexts.

The aim of this work is to get to know the language of young people in order to make a didactic proposal that can be useful for them. First, I have analyzed the sociolinguistic situation in the Region of Pamplona, and I have compiled some studies on the language of young people, especially on code change and calques. After this, I have daily analyzed the language of the young students at the language school of Pamplona, I have collected the language they use in oral exercises they do in class. I have also carried out a survey of the students to find out their profile and their needs. From this collected data, I have prepared a didactic proposal: an exercise to avoid the mistakes they make most, as well as an exercise to work on the informal basque.

Keywords: youth language; use of basque; calques; code-switching; informal basque.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. ARLO TEORIKOA	1
2.1. IRUÑERRIKO EGOERA SOZIOLOGIA.....	1
2.2. GAZTE HIZKERA.....	3
2.2.1. Kode aldaketa.....	4
2.2.2. Kalkoak.....	7
3. ARLO PRAKTIKOA	8
3.1. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	8
3.2. TESTUINGURUA	9
3.3. METODOLOGIA.....	9
3.4. BALIABIDEAK.....	10
3.5. JARDUERAK.....	11
3.6. EMAITZAK	12
3.6.1. Inkesta	12
3.6.2. Behaketaren emaitzak: kode aldaketaren erabilera.....	14
3.6.3. Behaketaren emaitzak: kalkoen erabilera.....	19
3.6.4. Behaketaren emaitzak: akats gramatikalak	21
3.6.5. Proposamen didaktikoaren balorazioa	21
4. ONDORIOAK	22
ERREFERENTZIAK	24
ERANSKINAK	27
1. ERANSKINA: INKESTA	27
2. ERANSKINA: ITZULPENEN ARIKETA.....	28
3. ERANSKINA: “KAHOOT” ARIKETAREN EMAITZAK	30

1. SARRERA

Gaur egun, Iruñerriak bi hizkuntza ditu: gaztelania eta euskara. Egoera diglosiko honetan, bi hizkuntzak ukipenean bizi dira, eta gazteen diskurtsoan eragiten du. Gaztelaniak eragin handia du euskaraz hitz egitean, gazte nahiz helduen euskararen, eta honen ondorioz ohikoak dira kode aldaketak eta kalkoak. Bi baliabide hauen inguruan asko aztertu da azken urteotan eta asko erabiltzen dituzte komunitate elebidunek. Euskararen egoera soziolinguistikoari dagokionez, azken datuen arabera, gutxi hitz egiten da kalean eta eremu formalera mugatzen da. Euskara ikastolan bakarrik hitz egiten dute gazteek, beraz, egoera informaletan komunikatzeko zailtasunak izan ohi dituzte.

Lan hau bi zatitan banatzen da: alderdi teorikoa eta praktikoa. Alderdi teorikoan, Iruñerriko egoera soziolinguistikoa aztertu dut azkeneko datuekin, lana testuinguruan jartzeko. Gero, gazteen hizkeraren ezaugarri orokorrei buruzko informazioa jaso dut, eta kode aldaketaren eta kalkoen erabileran sakondu dut nire ikerketan.

Alderdi teorikoan, berriz, nik jasotako informazioarekin gazteen hizkerari buruzko hornidura teorikoa egin dut. Horretarako, ikasleek klasean egunero erabiltzen duten hizkera jaso dut: egin dituzten kode aldaketak, kalkoak eta akats gramatikalak. Ikasleek inkesta anonimo bat ere bete dute eta beren profila ezagutzeko aukera izan dut. Bildutako informazio guztiarekin proposamen didaktikoa prestatu dut. Ikasleen euskara hobetzeko itzulpen ariketa bat prestatu dut, gaztelaniatik euskarara itzultzeko, haiek egin dituzten akatsekin. Ariketak egitean eta zuzentzean dituzten zalantzak argitzeko Euskaltzaindiak bere web-orrian duen zalantzen txokoa erakutsi diet. Jarraian, hizkera informala ezagutzeko bideo bat jarri diet. Bertan hainbat gazte agertzen dira eta hainbat esamolde adierazten dituzte. Gero, "kahoot" bat egin dute ikasleek.

Azkenik, emaitzak eta ondorioak agertzen dira.

2. ARLO TEORIKOA


2.1. IRUÑERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Lana testuinguruan jartzeko, Iruñerriko egoera soziolinguistikoa aztertu dut. Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko 2021eko VII. Inkesta Soziolinguistikoaren (Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurjaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2023) datuak hartu ditut. Iruñerriko datuak ematen ez direnez, eremu mistoko datuak kontuan hartuko ditut, antzeman baitaiteke eremu horretan datuak antzekoak izango direla. Aipatzekoa da inkestako parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak direla.

Hasteko, hiru kontzeptu argitu behar dira hizkuntza-gaitasunari buruz:

- Euskaldunak: euskara ondo eta nahiko ondo hitz egiteko gai direnak.
- Euskaldun hartzaileak: ez dira euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai. Hala ere, badute euskararen nolabaiteko ezaguza. Multzo hauetako bat gutxienez izan behar dira multzo honetan sailkatzeko: euskaraz zertxobait ulertzeko eta hitz egiteko gai izan eta/edo euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertzeko gai izan.
- Erdaldunak: gai ez direnak euskaraz ulertzeko ezta hitz egiteko ere.

Grafikoan ikusten den bezala, eremu mistoan % 12,6 euskaldunak dira, % 11,5 euskal hartzaileak eta % 75,9 erdaldunak.



1. **Irudia:** Hizkuntza-gaitasuna eremu mistoan 2021ean (%). Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskaldun kopurua (% 12,6) adinaren arabera sailkatzen da. 2021ean, azken datuen arabera, 16-24 urtekoak dira euskaldun gehienak, % 28,9, hain zuzen ere. 25-34 urte bitartean % 20,2 dira, eta euskaldunen portzentajea gutxitzen da adina handitzen den heinean. Aipatzekoa da euskaldun kopurua igo dela urteetan zehar: 2011n euskaldunak % 9,8 ziren, 2016an % 11,3 eta 2021ean % 12,6.

Inkestaren arabera, eremu mistoan lehen hizkuntza gaztelania dutenak gehiengoa dira (% 67,5). Euskara edo euskara eta gaztelania lehen hizkuntza dutenen kopurua antzekoa da, % 15,4 eta % 17,1, hurrenez hurren.

Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera ere aztertu da: % 30,4 euskara sustatzearen alde dago, % 35,5 ez alde ez aurka eta % 34,2 aurka.

Hurrengo datuak 2019ko VI. Inkesta Soziolinguistikotik (Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2017) hartu dituzte, argitaratu berriak agertzen ez direlako. Eremu mistoan euskaldun gehienek erraztasun gehiago dute gaztelania erabiltzeko euskara baino, % 71,9k, hain zuzen ere. % 19,6 berdin moldatzen da bi hizkuntzetan eta % 8,4k euskaraz hobeto egiten dute. Gainera, hamar euskaldunetik sei euskara eskolan jaso dute (% 62,6).

Azkenik, euskararen erabilerrari erreparatu, eremu mistoan % 3,2k euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dute, % 10,8k gaztelania gehiago erabiltzen dute eta gainontzekoek ez dute euskara erabiltzen.

2.2. GAZTE HIZKERA

Hasteko, aipatzekoa da ez dagoela gazte hizkera bakarrik, hainbat aldaerek osatzen baitute beren hizkera. Gazteek, beren burua identifikatzeko, legeak apurtzeko eta desberdintasuna lortzeko nahia dute. Horretarako, hainbat baliabide erabiltzen dituzte: pentsamendua, janzkera, baita hizkuntzak ere. Gazteek helduek eta haurrek ez bezala hitz egin nahi dute (Esnaola, 2000). Gainera, beren hizkera propioa sortu ohi dute (Ibarra, 2008, 220. or.).

Gazteen hizkera motak ezaugarri hauen arabera alda daitezke (Amonarriz, 2008, 168. or.): norberaren euskararen ezagupen maila, familiaren eta ingurunearen euskararen ezagupen maila, ezagutzen den/diren euskara motak (batua eta euskalkiak), bizi den ingurunearen errealitate soziolinguistikoa eta linguistikoa, euskalkiaren ezagupen maila, bizilekuan euskarak eta euskalkiek duten bizitasun etnolinguistikoa, harreman sarearen ezaugarri soziolinguistikoak eta norberaren eta taldearen identitatea eta ideologia linguistikoak.

Euskarak bilakaera handia izan du eta horren ondorioz, gazteek hitz egiten duten euskararen kalitateari buruzko eztabaida dago. Ibarra (2011a, 24. or.), hurrengo adierazten du:

“Gazteek egunero euskaraz egiten duten erabilerrari dagokionez, adierazi da euskara gainbeheratua erabiltzen dutela, aditzik, syntaxirik edo azenturik gabekoa eta ageriko hiztegi-urritasuna daukana. Gainera, euskara nahasia, korapilatsua, traketsa eta interferentzia ikusezinez betea sortzen ari garelako ideia oso zabalduta dago.”

Egoera honek segurtasun falta dakar gazte euskaldunengan. 2016an euskal gazteekin egindako ikerketa batean, hurrengo esaldiak adierazi zituzten gazteek, segurtasun falta dela eta (Ortega, Amorrortu, Garaizar eta Urla, 2016, 98-99. or.):

“Sí, todos [los amigos] somos de aquí, pero algunos **no tienen tanta facilidad** y, entonces, se pasan fácil al castellano.”

“Lo que pasa en mi cuadrilla, por ejemplo, es que, creo, que **la gente no se siente cómoda** hablando en euskera, que se siente mucho más cómoda hablando en castellano, porque no saben muy bien cómo decir algunas cosas, [...] y por eso, pues, la costumbre ha sido hablar en castellano pues desde pequeños, y es por eso que hablamos castellano [...]. Claro, es que al final **yo no tengo mucha confianza** para hablar en euskera.”

“[...] Me gusta el euskera y todo eso, pero me siento mejor hablando en castellano. No tengo problemas, pero, no sé, **me siento mejor en castellano**, me resulta más fácil.”

Aurreko esaldietan ikus daitekeenez, gazteak ez dira seguru sentitzen euskaraz hitz egitean, eta nahiago dute ez egin. Euskararen erabileraren inguruan, gazteek bi alderdi aipatzen diruzte: ezagutza maila eta familiarekin euskaraz egitean. Dena den, honek laguntzen du baina ez du erabilera ziurtatzen. (Hernandez eta Altuna, 2020, 450. or.).

2.2.1. Kode aldaketa

. Kode aldaketa diskurtsoan hizkuntza baten eta bestearen egiturak txandakatzean datza (Escandell et al., 2014, 369. or.). Fenomeno hau oso ohikoa da komunitate elebidunetan. Poplack ikerlariak (1980, 581. or.) Amerikako Estatu Batuetan bizi den puertorricar komunitate baten hizkera aztertu zuen, ingelesa nahiz gaztelania lehen hezkuntza duena. Kode aldaketa asko nabarmendu zen beren diskurtsoan. Bestelako komunitate elebidunetan ere aztertu da hau: Marokoar elebidunek marokoera eta frantsesa txandakatzen dute beren diskurtsoan (Bentahila eta Davies, 1983, 301. or.), eta euskal herriko komunitate elebidun euskal-frankofonoetan euskara eta frantsesaren arteko txandaketa gertatzen da (Epelde eta Oyharçabal, 2009).

Iruñerriak, eremu mistoa izanik, bi hizkuntza ofizial ditu: gaztelania eta euskara. Gaur egun, gaztelaniaren eragina nabarmena da euskal gazteen diskurtsoan. Kode aldaketa oso hedatuta dago euskaldunen artean, gazteek ez ezik, helduek ere erabiltzen dute (Ibarra, 2011a, 74. or.).

Kode aldaketaren erabilera hizkuntzaren trebetasun faltarekin lotu izan da. Honen inguruan hainbat ikerketa egin dituen ikerlariaren hitzetan (Macaro, 2005, 64. or.), kode aldaketa gaizki ikusita dagoen baliabidea da, baina hiztunen komunikatzeko estrategiak areagotzen ditu. Poplackek (1980, 581. or.) ere eusten dio ideia horri eta adierazten du kode aldaketaren erabilera trebetasun elebidunaren adierazlea dela. Romainek (1996, 74. or.), hurrengo adierazten du:

“Aunque el bilingüismo, la diglosia y la alternancia o mezcla de códigos se han citado con frecuencia como factores que llevan a la muerte de una lengua, lo cierto es que en algunos casos la mezcla de códigos y la diglosia son fuerzas positivas para mantener el bilingüismo.”

Dena den, gazteek hainbatetan gaztelaniara jotzen dute kontzeptu bat euskaraz adierazteko gai ez direnean (Muñoa, 2002, 57. or.). Beste zenbaitetan, beste pertsonen hitzak errepikatzeko erabiltzen dute, beren pentsamendua beste hizkuntza batean erreproduzitzeko, zehaztasuna adierazteko eta adierazpen-indarra azaltzeko (Ibarra, 2014, 35-36. or.). Gainera, euskaz egitean gaztelania erabiltzen da hitz itusiak eta irainak adierazteko, Bilboko euskaldunen artean ikertu den bezala (Lantto, 2014).

Poplackek (1983, 194. or.) hiru kode aldaketa mota bereizten ditu: perpaus barnekoa, perpaus artekoa eta etiketa modukoa.

Perpaus barneko alternantzia hizkuntza aldaketa perpaus bakarraren barnean gertatzen da. Mota honetako baliabidea erabiltzerakoan esaldia gramatikala izan behar du, beraz, bi hizkuntzak menperatu behar dira, hizkuntza bakoitzean onartzen ez diren puntuetan aldaketak ez egiteko (Epelde eta Oyharçabal, 2010 apud Ibarra, 2014). Perpaus barneko txandaketa preposizio perpausetan edo izen sintagmetan egiten da. (1) eta (2) adibideetan ikusten denez, euskara eta gaztelaniaren arteko txandaketa preposizioen bitartez egiten da. (3) adibidean, gaztelania erabiltzen da objektu zuzena adierazteko (*los enrolladitos*).

(1) Ni igo nintzen gora *a por la cámara* (Ibarra, 2014, 27. or.).

(2) Eta orduan nahi duzu dirua *pa lo básico* (Ibarra, 2014, 27. or.).

(3) Niri gustatzen zaizkit *los enrolladitos* (Ibarra, 2014, 30. or.).

Perpaus arteko alternantzia, gaztelania eta euskararen txandaketa bi esaldien artean gertatzen da. Gehienetan, lehenengo perpausa euskaraz egiten da eta bigarrena gaztelaniaz, hots, euskaraz hasi eta gaztelaniaz bukatu (Aurrekoetxea eta Unamuno,

2011, 28. or.). Kode aldaketa mota hau hainbat esaldi motatan egiten da: baldintzazko esaldietan (4. adibidea), emendiozko esaldietan (5. adibidea), esaldi hautakarietan (6. adibidea), mendeko perpausetan (7. adibidea) eta perpaus erlatiboetan (8. adibidea).

(4) Juten banaiz, *la voy a liar* (Ibarra, 2014, 31. or.).

(5) Hasten zara hitz egiten berarekin eta *te suelta algún comentario así borde* (Ibarra, 2014, 32. or.).

(6) O sea iaz bezala, utzi zidatela guztia *pero, gero, me echarán la gran cagada de* (Ibarra, 2014, 32. or.)...

(7) Nahi dugu *lo que más tenga* (Ibarra, 2014, 32. or.).

(8) Eta zijoazen bakarrik asteburu horretarako, *que era despedida de soltera* (Ibarra, 2014, 32. or.)...

Azkeneko kode aldaketa mota etiketa modukoa dugu. Deiturak berak aditzera ematen duenez, gaztelaniako hitzak txertatzen dira diskurtsoan etiketa moduan. Harridurak, makulu-hitzak eta diskutso elementuak izan ohi dira (Ibarra, 2011a, 59. or.). Gazteen artean oso ohikoa da kode aldaketa mota hau, eta hurrengoak erabiltzen dituzte euskaraz ari direnean: *bueno, sin más, pues, es que, vale, o sea que, qué va, claro, ya está, así que, aparte, según, igual, seguro, porque, por ejemplo, ya, yo qué sé, no sé qué, ¿Vale?, ¡por favor!, ze pasada, pasote, total* (Ibarra, 2011b, 281. or.). Hurrengo adibideetan etiketa moduko kode aldaketak azaltzen dira:

(9) Saiatuko gara *eta punto* (Ibarra, 2011b, 282. or.).

(10) Ta orain zuri tokatzen zaizu, *vale?* (Ibarra, 2011b, 282. or.)

(11) Total, nengola korrikan ta ikusi nuen kamara bat... *qué vergüenza!* (Ibarra, 2011b, 282. or.)

(12) Ta esan zuen in behar genuela hori, *sin más* (Ibarra, 2011b, 282. or.).

(13) Pff, bo, *anda que le den por culo* azterketa...! (Ibarra, 2014, 34. or.)

(14) Bai... *¡Mierda puta!* (Ibarra, 2014, 34. or.)

(13) eta (14) adibideetan ikusten denez, hitz itsusiak eta irainak ere erabiltzen dira kode aldaketa mota honetan.

2.2.2. Kalkoak

Kalkoak beste hizkuntza batetik hitz konposatu baten esanahia transferitzen duen mailegu-mota bat da, baina adierazlea hitzez hitz itzultzen da jasotzen duen hizkuntzaren sistemaren arabera. Jatorrizko hizkuntzaren testu-itzulpena da (Escandell et al., 2014, 369. or.). Gazteek kalkoak erabiltzen dituzte beren diskurtsoan (Ibarra, 2011a).

Hizkuntza bakoitzak bere esapide eta fraseologia-banakoak ditu eta halako elementuak ezin dira hitzez hitz itzuli hizkuntza batetik bestera. Dena den, batzuetan, hizkuntza batetik bestera esapideak bat etortzen dira (Alberdi, 2009, 12. or.).

Erabiltzen diren kalko asko okerrak dira. Euskaltzaindiak (2021, 501-502. or.), Euskara Batuaren Eskuliburuan, bi kalko oker mota bereizten ditu: kalko lexiko-semanticokoak eta kalko morfosintaktikoak.

Kalko lexiko-semanticoen adibide batzuk hurrengoak dira, ikusten denez, gaztelaniaren eraginez gaizki egiten direnak (Euskaltzaindia, 2021, 501-503. or.):

(15) *Noski baietz

(16) *Ez du pena merezi

(17) *Neska mutikoen artean ematen diren liskarrak

(18) *Faltan bota

(15) adibidean gaztelaniaren *claro que sí* forma euskarara itzuli da hitzez hitz, eta *noski baietz esaten da; noski edo bai, noski esan beharrean. Berdina gertatzen da pena merezi erabiltzen denean, merezi du erabili beharrean (16. adibidea) . Eman hitza ere gaizki erabiltzen da, gaztelanian erabiltzen den *se da* forma kopiatuz (17. adibidea). (18) adibidean, faltan bota gaizki erabiltzen da, falta nabaritu edo sumatu erabili beharrean.

Bestalde, hainbat dira kalko morfosintaktikoak, izen sintagmaren, aditzaren edo perpausaren esparrukoak (Euskaltzaindia, 2021, 504-508. or.):

(19) *Gai desberdinak tratatuko dituzte.

(20) *Beste egunean etorri zen.

(21) *Asko gorrotatzen naiz.

(22) *Hori egiten baduzu, aita haserretu daiteke.

(23) *Gure autoa, ez dela oso zaharra, askoz merkeagoa da.

(19) adibidean ikusten denez gaztelaniazko *los diversos/diferentes* kantitatea adierazten du eta ez diferentzia, beraz, hainbat gai erabili behar da. (20) adibidean, berriz, *beste egunean gaztelaniaren kalkoa da, lehengo edo aurreko egunean erabili behar da. Bihurkariak ere arazoa sortzen dute (21. adibidea), asko gorrotatzen dut neure burua erabiltzen delako. Euskaltzaindiak ahaleraren erabilera desegokia plazaratzen du (22) adibidean (litekeena da aita haserretzea). Azkenik, gaztelaniaren eraginez, erlatiboazko esaldiak gaizki egiten dira. (23) adibidean ez dena oso zaharra esan beharko genuke.

3. ARLO PRAKTIKOA

3.1. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerketa honen helburu orokorra gazteen hizkera ezagutzea da, euskararen egoera nola dagoen ezagutzeko, izan ere, gaur egun euskal hiztun gehienak gazteak dira. Alderdi teorikoan aztertu dudana bezala, gazteek kode aldaketak eta kalkoak erabiltzen dituzte nagusiki beren diskutsioan, horregatik baliabide hauek noiz eta nola egiten dituzten aztertu dut. Gainera, proposamen didaktiko bat egin dut beren euskara hobetzeko eta euskara egoera informaletan erabiltzeko gai izan daitezen.

Helburu espezifikoak hurrengoak izango dira:

- Ikasleei baliabideak ematea dituzten zalantzak argitu ahal izateko, itzultzaile edo hiztegiez haratago.
- Ikasleen profila eta beharrak ongi ezagutzea.
- Ikasleek proposamen didaktikoan parte har dezaten sustatzea.
- Ikasleek beren euskarari buruzko hausnarketa egitea.
- Euskara ikuspegi dibertigarri edo interesgarri batetik aurkeztea.

Arlo praktikoan egingo ditudan jarduerak egin baino lehen hainbat hipotesi aurreikusi ditut:

- Kolde aldaketaren eta kalkoen erabilera.
- Arlo akademikotik kanpo hizkuntza erabiltzeko zailtasuna: ikasleek zailtasunak izango dituztela atzematen dut, arlo akademikotik kanpo erabiltzen den erregistroa erabiltzeko. Adibidez, poza edo haserrea azaltzeko zailtasunak izatea espero dut.
- Klasean parte hartze urria izatea eta, beraz, corpusa jasotzeko zailtasunak izatea.

3.2. TESTUINGURUA

Arlo praktikoa C1 mailan dauden Hizkuntza Eskolako euskara ikasleekin egin dut, masterreko praktikak egiten ditudan bitartean. Bi klaserekin aritu naiz eta 16-34ko adin tartea ezarri dut.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala (IHEO) Iruñeko alde zaharrean kokatzen da, Konpainia kalean, hain zuzen ere. Eraikina zaharra da, historiaz betetako iragana duena. Erdi Aroan eraiki zen eta historian zehar seminarioa, infanteriako kuartela, eskola publikoa, Iruñeko erraldoi eta buruhandien biltegia eta txakurtegia ere izan da. 1978an, eraikina IHEO bihurtu zen. Aurten, eskolak 45 urte betetzen ditu.

IHEO irakaskuntza publikoko zentroa da, estatuko autonomia-erkidego guztietan dagoen hizkuntza eskola ofizialen sarean dagoena. Horregatik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren jarraibideen menpe dago. Nafarroak horrelako 3 zentro ditu gaur egun: Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala, Lizarrako Hizkuntza Eskola Ofiziala eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala. Lizarrako zentroa Iruñeko zentroaren hedapena da eta haren menpe dago administratiboki.

Eskolak 3.200 ikasle inguru ditu ikasturte honetan, eta horietatik erdiak, gutxi gorabehera, ingelesa ikasten du. Alde batetik, ikasle ofizialek eskolak hartzen dituzte urtean zehar, baita azterketa ere egiten dute. Beste aldetik, modalitate libreko ikasleek matrikula bakarrik azterketa egiteko egiten dute. Modalitate librean 1.000 ikasle inguru matrikulatzen dira urtero. Ikasleak, oro har, helduak dira, 18 urtetik gorakoak.

Klaseak astean bitan dira eta 2 ordu eta laurdenero iraupena dute. C1 milean ez dute libururik erabiltzen, irakasleek materiala prestatzen dute. Orokorrean, metodo komunikatiboa erabiltzen da, ahozko jarduna sustatzen da. Klase bakoitzean 20 ikasle daude, nahiz eta asistentzia urriagoa izan: normalean 12 ikasle inguru agertzen dira klasean.

3.3. METODOLOGIA

Hurrengo lerroetan erabili dudana metodologia azalduko dut. Ikasleen profila ezagutzeko 11 galderaz osatutako inkesta anonimo bat banatu nien ikasleei, klasean betetzeko. Bertan, hainbat galderaren bitartez beren profila eta euskararekin duten harremana aztertu dut. Galderetan non bizi diren, adina, euskara non ikasi duten, etab. galdetu diet. Gainera, beren euskara mailari buruz hausnarketa egitea eskatu diet, gaitasuna duten edo ez lagunekin hitz egiteko edo ligatzeko, adibidez (1. eranskina).

Bestalde, egunero ikasleek erabiltzen dituzten kalkoak eta kode aldaketak bildu ditut. Gainera, hainbat akats gramatikal ere bildu ditut. Libretatxo bat eraman dut apuntatzeko.

Azkenik, behin inkestaren datuak eta bildutako corpora bilduta, proposamen didaktiko bat egin dut. Alde batetik, behaketan zehar ikasleek izan dituzten akatsak ekiditeko ariketa prestatu dut. Horretarako, itzulpenak egiteko ariketa egin dut. Bestetik, gazteentzat erabilgarriak izan daitezken esapide informalak lantzeko ariketa prestatu dut, egunero erabil daitezkeenak. Hau lantzeko, bideo bat jarri diet ikasleei eta “kahoot” bat prestatu dut.

Egin dudan behaketan zehar, praktikaldian, behatzailearen paradoxa saihesteko neurriak hartu ditut, ahozko datuak jasotzeko oztopoa baita. Ikasleak epaituta edo zelatatuta sentitzen baziren, litekeena zen beren hizkera aldatzea.

“Vázquez Veiga, por su parte, apunta que el entrevistador debe dominar técnicas destinadas a «reducir el grado de formalidad» de las entrevistas, cuidando para ello determinados aspectos de su conducta. La autora pone especial énfasis en los aspectos formales, y señala que el entrevistador debe emplear un modo de expresión lo más sencillo posible, evitando los cultismos y las «construcciones retorcidas».” (Vázquez, 2003 apud Fernandez, 2018, 143. or.).

Adituek behatzailearen paradoxari buruz diotenez, lehenengo egunetik nire burua aurkeztu nien ikasleei, naturaltasunez. Ni ere ikaslea naizela adierazi nien, irakasle izateko masterra egiten bainuen. Gainera, hezkuntzan nire lehen aldia zela esan nien. Euskararen ahozko jardunari buruzko ikerketa bat egiten ari nintzela esan nien, master amaierako lana egiteko. Behatzailearen paradoxa ez da oztopoa izan ikerketan zehar, ikasleak naturaltasun osoz aritu dira.

3.4. BALIABIDEAK

Proposamen didaktikoa egiteko, nik neuk prestatutako materiala erabili dut, baita web-orri batzuk ere. Alde batetik, itzulpenen ariketa egitean eta zuzentzean azalpenak emateko Euskaltzaindiak (datarik gabea) bere web-orrian duen zalantzen txokoa erabili dut. Bertan, maiz egiten diren akatsak eta horiei buruzko azalpenak eta argibideak azaltzen dira. Baliabide honi esker, ikasleek hiztegia edo itzultzailea ez den baliabide berri bat ezagutu dute dituzten zalantzak argitzeko.

Bestetik, hizkera informala lantzeko, Berriak (2020) gazteen esamoldeei buruzko duen bideo bat erabili dut. Bideoan hainbat gazte azaltzen dira eta gazte esamoldeak

plazaratzen dituzte. Gero, gazteen hizkerari buruzko “kahoot”-a pestatzeko, Euskal Herriko Ahotsak elkarteak Gazte gara gazte izeneko proiektuan duen gazte hiztegia erabili dut. Biraoak liburua (Salaberri eta Zubiri, 2007) ere erabili dut.

Lehenengo ariketa paperean egin dugu eta azalpenak eta argibideak ikasgelako ordenagailuaren proiektorearen bidez eman dira. Gazte esamoldeei buruzko bideoa ere proiektorean jarri dut eta “kahoot”-a egiteko, ikasleek beren mugikorra erabili dute.

3.5. JARDUERAK

Proposamen didaktikoa egun bakarrean egin dut, klase oso batean. Aldez aurretik, ikasleek inkesta egin dute klasean, 10 minututan.

Egin dudan lehenengo ariketa itzulpen ariketa da. Ikasleen ahozko diskurtsoan gehien errepikatu diren akatsak eta antzeman ditudan ahultasunak aztertuta, itzulpen ariketa bat prestatu dut, gaztelaniatik euskarara itzultzeko. Jatorrizko hizkuntza gaztelania izango zela erabaki dut ikasleek ikus zezaten nolako eragina duen hizkuntza honek euskaraz ari direnean. Irakasleari ere interesgarria eta erabilgarria iruditu zitzaion nire proposamena. 2. Eranskinean prestatu nituen esaldiak agertzen dira. Klasean egin behar zituzten eta gero zuzendu genituen guztion artean.


Hasi baino lehen, Euskaltzaindiak (datarik gabea) bere web-orrian duen atala erakutsi nien: zalantzen txokoa. Ikasleei erakutsi nien jakin zezaten itzultzaileak eta hiztegiak ez ezik, beste baliabideak ere badaudela zalantzak argitzeko. Gainera, azalpen argiak ematen dira bertan. Lehenengo esaldia hartu nuen eta baliabide hau nola erabili erakutsi nien. Itzulpenak egitean zalantzak bazituzten zalantzen txokora jotzea gomedatu nien. Ariketa bukatu zutenean esaldiak zuzendu genituen guztion artean, eta eztabaidagarriak izan ziren zalantzak azaldutako web-orrian bilatu genituen.

Behin itzulpenen ariketa bukatuta, bideo bat jarri nien ikasleei erabilgarriak izan daitezkeen esamoldeak ezagutzeko. Inkestetan euskara egoera informalean erabiltzeko gai ez direla azaldu zuten ikasleek, horregatik erabaki nuen bideo hau jartzea. Bideoan, besteak beste, elkarrizketa garbitzen ari dira esapidea agertzen da batzuk musuka dabilzala adierazteko edo begian talo nago harridura azaltzeko. Azkenik, hizkera informalekin lotuta, “kahoot” bat prestatu nuen. Honetan, 8 galdera prestatu nituen hainbat esapide eta lexiko informala lantzeko. Ariketa eskuragarri dago hurrengo estekan: <https://create.kahoot.it/share/hizkera-informala-euskaraz/62405c98-aa16-41c6-baff-2db866f972f8>

3.6. EMAITZAK

3.6.1. Inkesta

Ikasleen profila ezagutzeko inkesta bat prestatu dut, beren euskararekiko harremana ezagutzeko. Inkesta klasean banatu eta bete dute ikasleek eta anonimoa dela azpimarratu diet. 22 ikaslek bete dute inkesta. Ikasle horietako baten inkesta baztertu dut 53 urte dituelako eta, beraz, aukeratutako adin tartetik kanpo geratzen delako. Gazteen artean, 9 pertsonak 16 eta 24 urte bitartean dituzte, eta 12 pertsonak 25 eta 24 urte bitartean. Ikasle guztiak Iruñerrikoak dira eta Iruñerrian bizi dira, bi ikasle izan ezik, Obanosen eta Muruzabalen bizi baitira.



2. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 4. galdera.

2. irudian ikusten denez, ikasle gehienek C1 titulua lortu nahi dute lan aukera gehiago izateko eta ez beren euskara hobetzeko.




3. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 5. galdera.

Gainera, ikasle gehienek ikastolan jaso dute euskara. Badira, dena den, euskara hizkuntza eskolan ikasi dutenak (3. irudia).


Zein uste duzu direla zure ahultasunak euskaraz hitz egitean?

- Gramatika
- Lexiko falta
- Segurtasun falta
- Arintasuna



4. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 6. galdera.

Testuinguru informaletan gai zara euskaraz hitz egiteko? Haserretzeko, ligatzeko... Ezin baduzu, zergatik dela uste duzu?




- Ez, gaztelania erabiltzen dut horretarako
- Bai

5. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 7. galdera.

Euskaraz hitz egiterakoan ikasleek gramatika eta lexiko falta sumatzen dute, baita segurtasun eta arintasun falta ere (4. Irudia). Honen harira, ikasle gehienek ezin dute euskara testuinguru informaletan erabili, horretarako gaztelania erabiltzen dute (5. irudia).

Nola uste duzu mintzatzen zarela, alegia, zure hizkera bai erdara eta bai euskara ona ala txarra da?



- Gaztelaniaz hobe
- Biak ongi
- Biak gaizki

6. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 8. galdera.

Zein hizkuntzatan sentitzen zara hobeki hizkera arduragabeen egiteko?



- Gaztelaniaz
- Euskaraz

7. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 9. galdera.

Hizkuntza gaitasuna kontuan hartuz, ikasleek uste dute gaztelaniaz hobe egiten dutela euskaraz baino. Harritzekoa da, ez dagoela euskaraz gaztelaniaz baino hobe aritzen den ikaslerik (6. irudia). Hizkuntza arduragabeen egiteko, ikasle guztiak gaztelaniaz erosoago sentitzen dira (7. irudia).



8. Irudia: Ikasleei egindako inkestaren emaitzak (%): 11. galdera.

Hezkuntzaren inguruan, ikasleek gehienek, 18k, hain zuzen ere, uste dute gramatikak indar gehiegi izan duela. Bakarrik 3k uste dute gramatikak pisu gutxi duela. Gainera, ahozkoak indar gehiago zan beharko lukela uste dute askok (8. irudia)

3.6.2. Behaketaren emaitzak: kode aldaketaren erabilera

Hurrengo lerroetan praktikaldian zehar bildutako corpusa azaltzen da. 3 hilabetez hartu ditut datu hauek, Hizkuntza Eskolako C1eko bi klaseko ikasleekin. Ahozko jarduna naturala eta bat-batekoa denez, hainbat kasutan, kode aldaketa mota bat baino gehiago egin daiteke esaldi berean.

a) Perpaus barneko kode aldaketa

(24) Joan behar naiz erostera *un cinturón*

(25) Ergatiboak dira *otro rollo*

(26) Atarikoa da *un sin sentido*

(24), (25) eta (26) esaldietan kode aldaketa izen sintagmetan gertatzen da.

(27) Ordu bat lehenago egon behar gara *si o sí?*

(28) Eta hor daude *erre que erre*.

(29) *Es que gaur etorri naiz espesa*.

Adibide honetan agertzen den bezala (27), ikasleak *si o si* esamoldea erabiltzen du antzekorik ez dagoelako euskaraz, eta, beraz, gaztelaniako egitura hartzen du.

Antzekoa gertatzen da (28) eta (29) adibideetan, ikasleek gaztelaniazko *erre que erre* edo *espesa* izenondoa erabiltzen dute lexiko faltagatik, pentsa daiteke.

(29) Bai, *espérate sentado*.

(29) adibidea nahiko bitxia dugu. Kasu honetan agintera erabiltzen da kode aldaketa egiteko, baina ironia moduan azaltzen du, metafora gisa. (30) adibidea *espesa* izenondoa gaztelaniaz erabiltzen da.

Como aditzondoarekin ere egin dute kode aldaketa ikasleek. (30) adibidean, kode aldaketa *como* hitzaren ostean egin da:

(30) Uste nuen azterketa zela *como en la selectividad*.

Baldintzazko esaldietan ikasleek hainbat kode aldaketa egin dituzte:

(31) Rebisorea pasatzen bada *pues multa*.

(32) Tokatzen bazaizu, *premio*.

(33) Gorbata jartzen baduzu elegante, *cuidado, eh!*

(34) Zure bikotekideak zuzentzen bazaitu *al carajo*.

(35) Zerbitzu publikoa bada ba, *pues igual si*.

Azkenik, preposizio perpausetan ere kode aldaketa gertatu dela ikusi dut:

(36) Usu? Hori erabiltzen da *en su casa*.

(37) Hitz egiten dute *de salud mental*.

b) Perpaus arteko kode aldaketa

Emendiozko esaldiekin perpaus arteko kode aldaketa egin dute ikasleek. Batzuetan konjuntzioa euskaraz erabiltzen da (38 eta 39), eta beste batzuetan gaztelaniaz (40):

(38) Ukitu eta *ya está*

(39) Zaude hor pelikulan *aburrido* eta ateratzen dut mugikorra.

(40) Gero irakurtzen duzu y *dices qué es esto?*

Hurrengo adibideetan mendeko perpausaren bitartez egiten da kode aldaketa:

(41) Iruditzen zaizu *que queda bien* hau?

(42) Iruditzen zait *que da no sé*, zaila.

- (43) Nago plan batean *que* berdin zait.
- (44) Dago momentu bat *que lo dice*.
- (45) Badakizu *que le puso los cuernos?*
- (46) Baina hau erabiltzen da? *A ver, que lo busque.*

Perpau arteko kode aldaketan ere erabili dira preposizioak:

- (47) Hor dago *con el whatsapp escribiendo*.
- (48) Pfff.. ez dakit *ni en qué día vivo*.
- (49) Hitz egingo dut *hasta que me pidan que pare*.

(50), (51), (52) eta (53) adibideetan galderak egiteko gaztelaniara jotzen dute ikasleek:

- (50) Hizkuntza eskolako zerbait da, *¿no te suena?*
- (51) Ez badakizu nola esan... *¿me explico?*
- (52) Zergatik? *¿Me estás llamando algo?*
- (53) Esan nahi nuen hau nola *se dice...?*

Badaude ere bestelakoak:

- (54) Egia da, *tiene más lógica*.
- (55) Musika entzuten ari naiz kaskoekin eta ama etorzen da hitz egitera.
Es que es una pesada.
- (56) Ni hasi nintzen baina utzi nuen *porque era un lío*.
- (57) Ez zait argi geratu azterketa nola den *exactamente*.
- (58) Joe, beti berdin, apuntatzen dut eta gero *no lo encuentro*.

Azkenik, (59) adibidean, gaztelania erabiltzen da besteen hitzak errepikatzeko, kasu honetan, bankuetako langileen hitzak erreproduzitzeko:

- (59) Bankuetan ez dute lan egiten: *esto no sé, habrá que preguntar...*

c) Etiketa moduko kode aldaketa

Bildu dudan corpusaren atal nagusia izan da etiketa moduko kode aldaketa. Talde honetan esamoldeak, hitz itusiak eta makulu-hitzak sartu ditut. Baliabide hauek oso ohikoak dira gazteen hizkeran eta naturaltasuna ematen diote diskurtsoari.

Asko erabiltzen duten makulu-hitza *es que* da:

- (60) Es que da depende, es que nire ikastolan bazegoen mutil bat...
- (61) *Es que* gaur etorri naiz *espesa*.
- (62) *Es que* gauza asko ez dira erabiltzen.
- (63) *Es que* ez dakit.
- (64) Musika entzuten ari naiz kaskoekin eta ama etorzen da hitz egitera.
Es que es una pesada.
- (65) *Es que* ez zait ateratzen hitza.
- (66) *Es que* ni gaizki ulertu dut.

Erabili izan duten beste batzuk *o sea*, *en plan* eta *en sí* dira:

- (67) Nik uste nuen, *o sea*, *no sé*, ez zela normala
- (68) *O sea*, giroa kutsatzen duela, *o sea*...
- (69) *O sea*, *en plan*, kasu horretan.
- (70) Hori ez da beste agunean egin genuena? *En plan*, bikotearena.
- (71) Nik horrela egin nuen, *en plan*...
- (72) Baina, *en sí*, hori esan du.

Gainera, hainbatetan *pues*, *no sé*, *en sí*, *sabes* eta *tío* esaten dute

- (73) Egon zen, *pues no sé*...
- (74) Espinilla esan *tío*, *pues ya está*.
- (75) Zerbitzu publikoa bada ba, *pues igual si*.
- (76) *Pues* nire buruan horrela delako.
- (77) Gustatzen zaiola *pues* pelikula komentatzea.
- (78) Iruditzen zait *que da no sé*, zaila.
- (79) Jakiteko, *sabes?* Gero arazorik ez izateko.

Esamoldeak adierazteko ere erabiltzen da kode aldaketa:

- (80) Ez dakit, *pasapalabra*.

- (81) Badakizu nola den, *renovarse o morir*.
- (82) Zuk gaitutuko duzu, hitz egiten duzu *super* ongi.
- (83) Bai, *espérate sentado*.
- (84) Bizi dira *como Dios*.
- (85) Ergatiboak dira *otro rollo* .
- (86) Ez bada asko aldatzen, *¡Madre mía!*
- (87) Badakizu *que le puso los cuernos?*
- (88) Zure bikotekideak zuzentzen bazaitu *al carajo*.
- (89) Ni hasi nintzen baina utzi nuen *porque era un lío*.
- (90) Eta hor daude *erre que erre*.
- (91) Gorbata jartzen baduzu elegante, *cuidado, eh!*
- (92) Bai, *más o menos*, ulertu dut.
- Azkenik, irainak adierazteko gaztelania erabiltzen da:
- (93) Zuk ahal duzu nire azterketa zuzendu? *Pues estamos jodidos...*
- (94) *¡Ah, mierda!*

d) Gaztelaniaren erabilera perpaus osoan

Batzuetan, ikasleek irakasleari zuzenean gaztelaniaz erantzuten zioten, batez ere akatsen bat egiten bazuten:

- (95) *Ah no, ahí hemos puesto punto*.
- (96) *¿Son preguntas tipo test?*
- (97) *¿Me lo estoy inventando?*
- (98) *¿Eso existe?*
- (99) *Ah, muy bien...*
- (100) *¡A la piscina!*
- (101) *Ya tío. lo pensé luego*.
- (102) *Ah, vale, vale espera...*

3.6.3. Behaketaren emaitzak: kalkoen erabilera

Hurrengo lerroetan aurkitutako kalkoak azaltzen dira. Nik aurkitutako kalkoen araberako sailkapena egin dut. Kalko hauek guztiak gaztelaniaren eraginez egiten dituzte gazteek. Parentesi artean nik proposatutako aldaketak azaltzen dira.

a) Erlatiboaren erabilera okerra

(103) *Bazegoen tipo bat euskalduna zela (zena).

(104) *Orain kontratuak bai direla txarrak (orain kontratuak txarrak dira).

(105) *Bera etorri da, Burgosekoa dela (dena).

b) Gaztelaniako lexikoaren erabilera “euskaratua”

Ikasleek erabiltzen dituzten hainbat hitz ez dira existitzen euskaraz, aditz berriak sortu dituzte gaztelaniatik -tu atzizkia gehituz (108, 110 adibideak). Beste batzuetan, berriz, -a atzizkia jartzen diote hitzari, artikulua marka (106, 107 adibideak):

(106) *Ez naiz expertoa (aditua).

(107) *Rebisorea pasatzen bada *pues multa* (begiratzaila).

(108) *Prezioak inflatuta daude (prezioak igo dira).

(109) *Gende asko zegoela timatuta (jende askori egin diote iruzur).

(110) *Ideia ona, rekomendatuta (gomendagarria/ gomendatzen dizut).

(111) *Inbitatuak galderak erantzuten ditu (gonbidatuak).

(112) *Ez da bersatila (moldakorra/ aldakorra).

(113) *Suposatzen dut baietz (uste dut).

c) Orainaldiaren erabilera geroaldiaren orde

(114) *Kontatzen dizut testua? (kontatuko).

(115) *Barkatu, jarraitzen dut? (jarraituko).

(116) *Joaten gara? (joango).

d) Esamoldeak adierazteko

Atal honetan, “euskaratu” diren gaztelaniazko esamoldeak agertzen dira, existitzen ez direlako euskaraz edo adierazten ez dakitelako.

- (117) *Lana antolatzen dute x moduan (horrela antolatzen dute/ modu espezifikoan)
- (118) *Baina gauza da teleberrian agertzen zena ez zela egia (kontua da).
- (119) *Gauza da ez dakidala non dagoen (kontua da).
- (120) * Nago plan batean *que* berdin zait.
- (121) *Goizean bai edo bai izan behar da, ezta? (nahitaez/ bai edo bai kendu)
- (122) *Ofertan dago, 3 bider 2 (hiru biren prezioan).
- (123) *Gaur nago pixka bat...
- (124) *Pena merezi du (merezi du).
- (125) *Bai ala bai "I" rekin idazten da? (beti/ nahitaez)
- (126) *Gainditu behar dira bi atalak bai ala bai? (nahitaez/ bai ala bai kendu)

e) Bestelakoak

Hinbatetan gaztelaniaz esaten den *como que* edo *como* aditzondoa euskaraz ez da erabiltzen. Adibidez (127) adibidea, gaztelaniaz esan dezakegu *un podcast es como una entrevista*, antzekotasuna adierazteko, edo bezala hitza adiezteko. Kasu hauetan, aski izango litzateke *nola* hori kentzearekin. Hurrengo kasu hauetan, bezala erabili beharrean, hitzez hitzeko kalkoa egin da eta *nola* erabili da. (130) adibidean, gainera, beste akats bat dago, *eman* hitzaren erabilera. Kasu honetan badirudi erabili beharko litzateke.

- (127) **Podcast* bat da nola elkarrizketa bat (podcast bat elkarrizketa bat da).
- (128) *Nik ikusten dut nola integratuta ez dagoela (nik ikusten dut integratuta ez dagoela)
- (129) *Egiten duzu nola zupustean (egiten duzu zapustean).
- (130) *Testuan ematen du nola ez daudela hor (badirudi)

Gaztelaniaren eraginez, hurrengo hutsak ere egin dira:

- (131) *Hain txikia zen, ez zela beste inor sartzen (non ez baitzen)

(132) **Es que da depende, es que nire ikastolan bazegoen mutil bat...*

(133) *Futbol partidan denbora eta gutxi gehiago ikusten nuen (denbora bakarrik)

(134) *Gauza guztiko jendea etortzen da (denetariko).

(135) *Zerbait horrela esaten du (horrelako zerbait).

(136) *Nik batean dut azterketa (ordu batean).

3.6.4. Behaketaren emaitzak: akats gramatikalak

Kalkoak eta kode aldaketa gazteen hizkeran ikertu ez ezik, akats gramatikalak ere bildu ditut.

a) Ergatiboaren falta edo erabilera okerra

(137) Irakurri duzu? Ni bai (Nik).

(138) *Nik azkena naiz (Ni).

(139) *Beste bat jarraitu nahi badu... (Beste batek).

(140) *Ni ez dut ulertu (Nik).

(141) *Berak ere euskara irakaslea da (Bera).

b) Bestelakoak

Hurrengo adibideetan ikusten denez, ikasle batzuek *izan* eta *ukan* nahasten dituzte (142 eta 146). Beste batzuek, ahalera erabiltzean akatsak egiten dituzte (143 eta 144). Azkenik, data gaizki adierazi du ikasle batek (145).

(142) *Ez dut konturatu (naiz).

(143) *Kontatu ahal dezaket 6 lerrotan (ahal dut/ dezaket).

(144) *Eskura ditzazkezu (ditzakezu).

(145) *Azterketa maiatzak 22an da (maiatzaren 22an).

(146) *Pizten ari duzunean (zarenean).

3.6.5. Proposamen didaktikoaren balorazioa

Proposamen didaktikoa aurrera eramán ondoren gogoeta egin eta hainbat ondorio atera ditut. Orokorrean, proposamen didaktikoak harrera ona izan du. Bi klaseen

artean alde handia nabaritu dut. Klase batean nahiko gazteak ziren guztiak orokorrean, 17-25 urtekoak, eta momentu batzuetan batzuen interes falta agerikoa izan da. Beste klasean, berriz, ikasleak helduagoak ziren eta parte hartzea handia izan da. Bestalde, normalean ikasleen bertaratzea urria da, 25 ikasle dira klase bakoitzeko baina, aitzitik, 12 ikasle inguru bertaratzen ziren. Klase eman nuen egunean proposamen didaktikoa aurrera eramateko, harrigarria bada ere, askoz ikasle gehiago bertaratu ziren.

Alde batetik, itzulpen ariketak zuzentzean ikasleek adierazi zidaten uste zuten baino okerrago egiten dutela euskaraz, egiten zituzten akatsak ezagutzen ez zituztelako, ongi zeudela uste zutelako. Orokorrean harridura azaldu zuten eta, aldi berean, interesgarria iruditu zitzairen. Gaztelaniak gure euskararen duen eragina azaldu nien, eta gehienetan hori izaten dela akatsen erruduna. Izan zuten jarrera espero nuen baino hobea izan zen. Hala ere, bazeuden ere mugikorrarekin ibili ziren ikasleak, ariketa zuzentzen ari ginen bitartean.

Esamoldeak eta hizkera informala lantzeko ariketak ere harrera ona izan zuen. Bideoa gehienek interesarekin ikusi zuten, batzuek barre ere egin zuten, esamolde barregarrik baten batekin. “Kahoot” ariketa oso dibertigarria izan zen, jarduera honekin lehiakortasun ingurunea sortzen delako. Ikasleek ez zituzten prestatu nituen lexiko eta esamolde informalak ezagutzen eta asmatze-tasa ez zen oso altua izan (3. Eranskina). Dena den, ikasleek asko parte hartu zuten. 3. Eranskinean “kahoot-aren galderak eta emaitzak azaltzen dira.

4. ONDORIOAK

Lana bukatu ondoren, hainbat ondorio atera ditut. Ahozko jarduna ikertzean, kontuan hartu behar da bat-batekoa dela, eta normala dela huts egitea. Nire ustez, euskararen egoera ikusita, exigenteak gara besteen euskara mailarekin, euskara ona nahi dugu. Egia esan, azkeneko datuetan ikusten da euskara kalean gutxi egiten dela, beraz, euskara perfektua bilatu baino euskara berez bilatu beharko genuke. Gazteek adierazten dutenez, hitz egiteko beldur dira, beren burua epaituta sentitzen dutelako. Dena den, garrantzitsua da gure euskara maila hobetzeko nahia izatea, baita ikasten jarraitzeko grina izatea ere. Lehenengo pausua euskara egiten da, bigarrena hobetzea.

Kode aldaketei eta kalkoei dagokienez, lanean zehar aztertu da askotan egiten den baliabidea dela, eta hizkuntza naturalaren adierazlea dela. Ez nituzke baliabide hauek ontzat emango diskurtso osoan zehar gertatzen badira, baina egia da euskarak bere nortasun propioa duela, eta baliabide hauek nortasun horren parte direla. Makulu-hitzak (*o sea, en plan, pues...*), adibidez, oso ohikoak dira gazteen diskurtsoan euskaraz

nahiz gaztelaniaz. Ez dut uste horrelakorik hizkuntza maila baxuaren adierazle denik, baizik eta heldutasun faltaren adierazle. Beste kasu batzuetan, egia da, baliabide hauek lexiko falta betetzeko erabiltzen direla, ikusi den bezala. Normalean, esapideak izaten dira.

Hizkera informalararen inguruan, bistakoa da gazteek ez dakitela euskara erabiltzen testuingu informaletan. Horren adierazle da gaztelania erabiltzen dutela kalkoen eta kode aldaketen bitartez esamoldeak edo hitz itsusiak adierazteko. Haien ere aitortu dute hau inkestan: ez dira gai euskara informala hitz egiteko eta gaztelania nahiago dute horretarako.

Bestalde, hizkuntza gaitasuna dela eta, % 22k esan dute beren euskara ona dela. Nire ikerketaren emaitzek, berriz, kontrakoa adierazten dute: gaztelaniaren eragin handia duen euskara erabiltzen dute ikasleek eta hainbat esapide edo hitz informal ez dituzte ezagutzen. Dena den, egoera hau epaitu ahal izateko, lehenengo jakin beharko genuke zer den euskara perfektua erabiltzea.

Azkenik, aipatu nahiko nuke, askotan euskararen hizkera formalaz eta informalaz aritu naizela eta berez, bien arteko muga ongi zehaztuta dagoela. Praktikaldian zehar, bi erregistro hauen arteko desberdintasunak gutxitzen ari direla konturatu naiz, hau da, irakasleari lagunari bezala egiten diotela. Egoera hau bizi izan dut irakasleari zuzenean gaztelaniaz egiten diotenean, edo hitz itsusiak erabiltzen dituztenean irakasleari zuzentzeko. Kontua da hemen, hizkera hau, formala edo informala izan, portzentaia handian gaztelaniaz egiten dela.

ERREFERENTZIAK

- Alberdi, X. (2009). Kalkoen tipologia eta eragina gaurko euskarazko neologian. *Anuario Del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International Journal of Basque Linguistics and Philology*, 43, 1-17.
- Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. *Bat. Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 167-183.
- Aurrekoetxea, G. eta Unamuno, L. (2011). Perpaus arteko euskara-gaztelania kode-aldaketa. *Euskalingua*, 19, 25-30.
- Bentahila, A. eta Davies, E. E. (1983). The syntax of Arabic-French code-switching. *Lingua: International Review of General Linguistics*, 59 (4), 301-330.
- Berria (2020). *Gazteen esamoldeak*. [Youtuben argitaratutako bideoa]. Hemendik eskuratuta: <https://youtu.be/EkT3LAI4rE0>
- Epelde, I. & Oyharçabal, B. (2009). *Code switching en las variedades orientales del vasco*. IKER-UMR 5478, Euskal hizkuntza eta testuen ikerketa zentroa.
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2010). Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak ekialdeko euskal elebidunetan. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International Journal of Basque Linguistics and Philology*, 55–64.
- Escandell, M.V., Marrero, V., Casado, C., Gutiérrez, E., Polo, N. eta Ruiz-Va, P. (2014). *Claves del lenguaje humano*. Ramón Areces Unibertsitate Argitaletxea.
- Eснаоla, I. (2000). Gazteak eta erregistro kolokiala. *Hik Hasi: Euskal Heziketarako Aldizkaria*, 49, 22-27.
- Euskal Herriko Ahotsak Elkarte, Gazte gara gazte proiektua. (datarik gabea). *Gazte hiztegia*. Hemendik eskuratuta: <https://gazteak.ahotsak.eus/gazte-hiztegia/>
- Euskaltzaindiako web-orria. (datarik gabea). *Zalantzen txokoa*. Hemendik eskuratuta: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_zalantzak&task=home&Itemid=1763&lang=eu
- Euskaltzaindia. (2021). *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)*. Hemendik eskuratuta: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=pdf&Itemid=1161&atala=kalkoak

- Fernandez, A. (2018). La entrevista libre como método para evitar la paradoja del observador. Un estudio de corpus. *CHIMERA: Revista de Corpus de Lenguas Romances y Estudios Lingüísticos*, 5 (2), 141-196.
- Hernández, J. M. eta Altuna, J. (2020). Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2 (65), 445-479.
- Ibarra, O. (2008). Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual: léxico, calcos y transferencia lingüística. *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura*, 23, 219-240.
- Ibarra, O. (2011a). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Ibarra, O. (2011b). Sobre las estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura*, 26, 277-298.
- Ibarra, O. (2014). Tipología y pragmática del code-switching vasco-castellano en el habla informal de jóvenes bilingües. *Lapurdum*, 18, 23-40.
- Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren web-orria. (datarik gabea). Hemendik eskuratuta: <https://eoi.educacion.navarra.es/web/eu/>
- Lantto, H. (2014). Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao. *The International Journal of Bilingualism: Cross-Disciplinary, Cross-Linguistic Studies of Language Behavior*, 18 (6), 633-648.
- Macaro, E. (2005). Codeswitching in the L2 classroom: a communication and learning strategy. E. Llorca (Ed.), *Non-Native Language Teachers*, 63-84. Springer argitaletxea.
- Muñoa, I. (2002). Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 42, 53-63.
- Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa: Nafarroako Foru Komunitatea*.
- Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa (2023). *VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021: Nafarroako Foru Komunitatea*.

Ortega, A., Amorrortu, E., Garaizar, J. G. eta Urla, J. (2016). *Los nuevos hablantes de euskera: experiencias, actitudes e identidades*. Deustuko Unibertsitatea.

Poplack, S. (1980). Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español: towards a typology of code-switching. *Linguistics*, 18 (778), 581-618.

Poplack, S. (1983). Lenguas en contacto. In H. Lopez (arg.), *Introducción a la lingüística actual* (183-207. or.). Playor Argitaletxea.

Romaine, S. (1996). *El lenguaje de la sociedad. Una introducción a la sociolingüística*. Ariel Argitaletxea.

Salaberri, P. eta Zubiri, J. J. (2007). *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Pamiela argitaletxea.

Vázquez, N. (2003). *Marcadores discursivos de recepción*. Santiago de Compostelako Unibertsitatea.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: INKESTA

ZURE EUSKARAREKIKO HARREMANA

1. Zenbat urte dituzu?
2. Nongoa zara?
3. Non bizi zara?
4. Zergatik zaude hemen? Zertarako nahi duzu C1 titulua?
5. Non ikasi duzu euskara?
6. Zein uste duzu direla zure ahultasunak euskaraz hitz egitean?
7. Testuinguru informaletan gai zara euskaraz hitz egiteko? Haserretzeko, ligatzeko... Ezin baduzu, zergatik dela uste duzu?
8. Nola uste duzu mintzatzen zarela, alegia, zure hizkera bai erdara eta bai euskara ona ala txarra da?
9. Zein hizkuntzatan sentitzen zara hobeki hizkera arduragabeen egiteko?
10. Nola erakutsi dizute euskara? Gramatikak indar gehiegi izan du?
11. Nola nahiko zenuke hizkuntza bat ikastea? Ahozkoak pisu gehiago ala gramatikak indar gehiago behar luke izan?

2. ERANSKINA: ITZULPENEN ARIKETA


ITZULPENAK

Tengo muchas ganas de hacer el examen e irme de vacaciones	
No merece la pena intentarlo otra vez.	
Tenemos que hacer el examen. ¿Empezamos ya?	
El otro día vi a Edurne en la calle y me dijo que estaba muy contenta.	
El examen será el 22 de mayo.	
-Vas a venir mañana? - ¡Claro que sí!	
No me veo preparado para las oposiciones.	
Había un tipo que era vasco.	
Algunas personas no se cuidan y fuman mucho.	
Con todo esto podemos empezar a estudiar.	
Nos vemos el jueves para acabar el trabajo.	
Un abrazo desde Pamplona.	
Tú has sido el que lo ha roto.	
No hemos venido a clase porque hemos estado ocupados.	
Preguntaron en diferentes (varias) tiendas.	
No me gusta mucho estudiar.	

Si o si van a venir a buscarme.	
Han timado a mucha gente.	
Mañana saldrá el sol seguramente.	
Yo veo como que no está integrado.	
Estan ahí erre que erre para conseguir lo que quieren.	
Te echo de menos	
He trabajado cuatro años como profesor de matematicas.	
Después de la reunión, iremos a la calle.	
Nuestro pueblo es tan pequeño que no hay sitio para aparcar.	
No se hablan entre ellos.	
La cosa (cuestión) es que no puso el despertador y llegó tarde.	

3. ERANSKINA: "KAHOOT" ARIKETAREN EMAITZAK

1. taldea:

1	Nor da litxareroa?	 0%
2	Nor da itxurantea?	 25%
3	Zer da izerdia partekatzea?	 67%
4	Zer da txakurraren ipurdian egotea?	 33%
5	Nola esango zenuke euskaraz "hacer la pelota"?	 75%
6	Nola esango zenioke asko arduratzen ez den pertsonari?	 33%
7	Zer da gozoa egotea edo jartzea?	 17%
8	Tontoaren sinonimoa:	 100%

2. taldea:

1	Nor da litxareroa?	 18%
2	Nor da itxurantea?	 55%
3	Zer da izerdia partekatzea?	 55%
4	Zer da txakurraren ipurdian egotea?	 64%
5	Nola esango zenuke euskaraz "hacer la pelota"?	 82%
6	Nola esango zenioke asko arduratzen ez den pertsonari?	 45%
7	Zer da gozoa egotea edo jartzea?	 0%
8	Tontoaren sinonimoa:	 91%